

BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3101

1184/2023 EBAZPENA, ekainaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez arautzen diren Osakidetzaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako 2022ko ekitaldiko lanbide-garapenaren maila esleitzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskabideak eta ebaluazio- eta esleipen-prozedurak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen, langile ez-sanitarioen eta lanbide-heziketako profesional sanitarioen lanbide-garapena arautzen duten azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 11. artikulua araber, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari dagokio langileak mailetan kokatzeko ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea.

Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 12ko 1531/2022 Ebazpenaren bidez lanbide-garapeneko deialdia ebatzi ondoren ematen da. Hain zuzen, 1531/2022 Ebazpenaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko maila aitortzeko eskaerak ebatzi ziren eta behin betiko esleipena argitaratzeko agindu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ezohiko deialdiaren esparruan.

Era berean, Osasuneko Mahai Sektorialak 2021eko uztailaren 8ko bileran lortutako akordioa onartzen duen maiatzaren 10eko 60/2022 Dekretuak ezartzen du aipatutako akordioa onartzen dela hurrengo ekitaldietan deialdiak egin daitezzen, harik eta lanbide-garapenaren maila ebaluatzeko eta aitortzeko prozedura berri bat ezarri arte.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta azaroaren 22ko 395/2005 Dekretua, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretua, abenduaren 26ko 248/2007 Dekretua eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren eranskinetako 5. apartatua jasotako aldaketa aplikagarriak,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da eskaerak aurkezteko baldintzak, formak, epeak eta maila ebaluatzeko eta esleitzeko prozedurak arautzea, 2022ko ekitaldiko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko profesionalen ebaluazioaren eta lanbide-garapenaren ohiko deialdian.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Prozesu honetan, Osakidetzako lanbide-talde guztietako langile finkoek eta ez-finkoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta ebazpen honetako 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta deialdian ezarritako eskaera-epean Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan aktibo badaude edota senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatik edo zerbitzu bereziengatik eszedentzian badaude, osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legean ezarritakoaren arabera.

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 4. eta 5. artikuluekin bat, profesionalak unean aitortuta daukaten mailaren justu goragoko maila eskatu ahalko dute eta hura aitortu ahalko zaie. Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionalean mailarik aitortuta ez dutelako sarbide-mailan dauden profesionalak I. mailako aitortpena bakarrik eskatu ahalko dute.

Aldi baterako barne-sustapenean dauden langileek izendapen finkoa duten kategorian bakarrik eskatu ahalko dute lanbide-garapena, eta kategoria horri dagokion lanbide-garapenaren osagarria jasotzeko eskubidea izango dute.

Lanbide-garapenaren mailaren eskaera aurkeztea borondatezkoa da, eta, eskaeran, interesdunek egiaztatu beharko dute deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela edo baldintza horiek eskaerak aurkezteko epearen barruan betetzeko moduan daudela.

3. artikulua.– Sartzeko baldintzak.

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 5. artikuluan eta ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren eranskinaren 5. apartatuan, honako baldintza hauek ezartzen dira lanbide-garapeneko maila ebaluatu eta aitortzeko deialdi honetan parte hartzeko:

1.– Osakidetzan zerbitzuak benetan ematen direla egiaztatzea, honako zehaztapen hauen arabera:

a) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lanpostua jabetzan duten langile finkoek edota behin-behineko birlaneratze-egoeran dauden langile finkoek egiaztatu beharko dute, batetik, benetan ematen dituztela zerbitzuak Osakidetzan lanbide-garapeneko maila lortu nahi duten kategorian, bestetik, zerbitzu aktiboan edo senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian daudela eta, azkenik, zerbitzu horiek gutxienez urtebetez eman dituztela deialdiko eskaera-epea hasi aurreko azken hiru urteetan.

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lanposturik jabetzan ez duten langile finkoek, ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuak ezartzen duen bezala, egiaztatu beharko dute, batetik, benetan ematen dituztela zerbitzuak Osakidetzan lanbide-garapeneko maila lortu nahi duten kategorian eta, bestetik, zerbitzu aktiboan edo senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian daudela deialdiko eskaera-epea hasi aurreko azken hiru urteetan.

c) Finkoak ez diren langileek egiaztatu beharko dute gutxienez hiru urtez eman dituztela zerbitzuak Osakidetzan lanbide-garapena eskatzen duten kategoria berean. Zerbitzuak deialdia eskatzeko epea hasi aurre-aurreko bost urteetan emandakoak izan behar dira.

Finkoak ez diren langileek Enplegu Publikoaren Eskaintzaren azken prozesuan parte hartu behar izan dute, eta aukeratu duten kategoriako azterketa egin. Salbuespen gisa, ezinbesteko arrazoiaren batengatik interesduna ez bazen probara aurkeztu, baliteke lanbide-garapeneko eskaera kontuan hartzea, betiere probara aurkezteko eskabidea egin bazuen.

2.– Bost urtez zerbitzuak eman izana lanbide-garapena lortu nahi den kategorian.

Emandako zerbitzuak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira Osasun Sistema Nazionalean edo Europar Batasuneko estatuetako osasun sistemetan antolamendu aldetik eta funtzionalki integritutako erakunde sanitarioetan zerbitzu aktiboan edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duten antzeko egoeraren batean emandako denbora-tarteak.

a) Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren eta otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren bidez araututako profesionalen kasuan, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Lortu nahi den mailari dagokion kategoriako (eta, hala badagokio, espezialitateko) edo lanbide-talde bereko beste kategoria batzuetako lanpostu funtzionalak betetzea, betiere lan hori egiteko lizentziadun edo diplomadun mailako titulu sanitarioa (edo baliokidea) eskatzen bada. Ez dira kontuan hartuko Osasun Zientzietako espezialisten titulu ofizialak lortzeko prestakuntza-urteak, salbu eta zerbitzu berezietan izan badira.

– Osasun Sistema Nazionalari atxikitako erakundeetan edota ikerketa-zentro ofizialetan ikerlari gisa emandako zerbitzuak, baldin eta lizentziadun edo diplomadun mailako eta dagokion espezialitateko titulu sanitarioa (edo baliokidea) eskatzen duen lan-kontratuarekin badira.

– Etengabeko arretako zerbitzurako langile kontratatu gisa emandako zerbitzuak.

b) Abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren arabera araututako profesionalentzat, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Lortu nahi den mailari dagokion kategoriako edo beste kategoria batzuetako lanpostu funtzionalak betetzea, betiere lanbide-talde berekoak edo goragokoak badira.

– Osasun Ministerioaren 1984ko ekainaren 14ko Aginduan ezarritakoaren arabera «teknikari funtzioetako erizaintzako laguntzaile» gisa emandako zerbitzuak kontuan hartuko dira lanbide-garapenerako.

3.– Eskatutako maila lortzeko behar diren zerbitzu-urteak betetzea.

a) Kategorian emandako zerbitzuei (kategoria horretan gutxienez bost urte eman badira) Osasun Sistema Nazionalan edo Europar Batasuneko estatuetako osasun-sistema publikoetan emandako zerbitzuak gehitu ahal izango zaizkie, honako balio hauen arabera:

Sarbidea zein lanbide-taldetatik	Emandako zerbitzuen balio haztatua, taldeen arabera										
	A1	A2	B1	B2	C1	C2	C3	D1	D2	D3	E1
A1	% 100	% 50	% 50	% 25	% 25	% 10		% 15	% 10		% 10
A2	% 100		% 75		% 50			% 25			% 15
B1	% 100	% 50	% 100	% 25	% 50	% 15	% 10	% 25	% 10		% 10
B2	% 100				% 75			% 50			% 25
C1	% 100							% 75			% 50
C2											
C3											
D1	% 100										% 75
D2											
D3											
E1	% 100										

b) Lortu nahi den lanbide-garapenerako mailari dagokion kategorian beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak % 50ean baloratuko dira, baldin eta, artikuluko honen 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera, egiaztatzen bada Osakidetzan ematen direla zerbitzuak benetan lanbide-garapenerako eskaera egiteko kategorian.

4. artikulua.– Eskabideak eta eskabideak aurkezteko epean aurkeztu beharreko agiriak.

Parte-hartzaile bakoitzak eskaera bakarra egin beharko du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua-ren Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoaren bidez (<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> helbidean eta Osakidetza-ren webgunean dago erabilgarri). Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak jarriko ditu, bere zerbitzu-erakundeen bitartez, paragrafo honetan adierazitako moduan eskabidea aurkezteko behar diren baliabide informatikoak.

Profesionalak 2022ko abenduaren 31n bete beharko ditu lanbide-garapeneko mailara iristeko baldintzak, bai eta zerbitzuan emandako urteak ere. Eskatzaileek hilabeteko epea izango dute, ebazpen hau indarrean jartzen den egunetik aurrera, eskabidea eta dagokion dokumentazioa bete eta aurkezteko, artikulua honetan ezarritakoaren arabera.

Profesionalek Lanbide Garapeneko aplikazioan egingo dute eskabidea, eta, hala badagokio, Osasun Sistema Nazionalako beste osasun-zerbitzu batzuetan edo beste administrazio batzuetan emandako zerbitzuak erregistratu eta egiaztatuko dituzte Curriculum Vitae aplikazioan. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik kanpo emandako zerbitzuak baliozkotuta dituzten pertsonak alegatutako zerbitzu berriak baino ez dituzte erregistratu beharko, eta zerbitzu berri horiek baliozkotzeko behar diren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Kanpoan emandako zerbitzuak baliozkotzeko, jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, eta, konpultsa horretan, data, izen-abizenak eta konpultsaren arduradunaren sinadura irakurgarria jasoko dira. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak EAEn ofizialak ez diren hizkuntzetan aurkeztutako dokumentuen zinpeko itzulpena eskatu ahalko die interesdunei. Ez dira zenbatuko erabiltzaileak eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren Curriculum Vitae aplikazioan sartu edo aldatu dituen zerbitzuak.

Aurkeztutako eskaeran, dokumentazioan edota informazioan datu faltsurik aurkituz gero, eze-reztatu egingo da eskabidea; horrez gainera, ez zaio uko egingo bestelako lege-neurriak hartzeari.

Lanbide Garapeneko aplikazioan eskaera bete ondoren, profesionalek egindako eskabidearen frogagiria lortu eta artxibatu ahalko dute.

Zerbitzu aktibokoa ez den beste egoeraren batean daudenek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan edo Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan aurkeztu beharko dute aipatutako dokumentazioa, edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako bideen bitartez. Osakidetza-koa aplikazioko (<https://osakidetza.osakidetza.eus>) «Datu pertsonalak» atalean adierazitako helbideak bakarrik balioko du jakinarazpenetarako, eta eskatzaileen erantzukizuna izango da helbide hori beteta edukitzea, bai eta edozein aldaketa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari jakinaraztea ere.

Prozesuan onartua izateko, beharrezkoa da fase honetan eskatutako eskabidea eta egindako zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazioa garaiz eta behar bezala aurkeztu izana, ezarritako epearen barruan.

5. artikulua.– Deialdian onartutako eta baztertutako izangaien zerrendak.

1.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak ebazpen bat emango du, eta, bertan, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Halaber,

ebazpen horretan, hamar egun balioduneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko eta eskabidea zuzentzeko. Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratuko da.

2.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Balia-bideen zuzendariak ebazpen bat emango du, eta, bertan, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratuko da.

6. artikulua.– Curriculumeko merezimenduen eta autoebaluazioaren fasea.

Behin betiko zerrendan onartutakoek hilabeteko epea izango dute, deialdian onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda jasotzen duen ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, B blokeko curriculumaren merezimenduak (Prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkundea eta Ikerkuntza eta berrikuntza) eta C blokeko curriculumaren merezimenduak (Parte-hartzea eta Konpromisoa), Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatzeko.

Aldi horretan bertan, profesionalek faktore edo item desberdinetako ebaluaziorako garrantzitsutzat jotzen dituzten datuak eman ahal izango dituzte, ebaluaziorako ekarpen-fitxak betez eta, horrela, autoebaluazioa eginez.

B blokeko curriculumaren merezimenduen eta C blokeko curriculumaren merezimenduen ebaluazioari dagokionez, aurreko sei edo zazpi urteetako merezimenduak hartuko dira kontuan, aurretik aitortutako mailan egondako denbora-tartearen arabera, eta 2022ko abenduaren 31ra arte zenbatuko dira. I. maila lortzeko, profesionalen curriculum osoa hartuko da kontuan.

Aurreko prozesuetan Osakidetza baliozkotutako curriculumaren merezimenduak dituzten profesionalek alegatutako merezimendu berriak soilik erregistratu beharko dituzte, eta dagozkien egiaztagiria aurkeztu, baliozkotzeko. Era berean, erregistratutako merezimenduei buruzko dokumentazioa aurkeztu ahal izango da, baldin eta Osakidetza atzera bota baditu egiaztatzeko agiririk ez izateagatik edo dokumentazio hori nahikoa ez izateagatik. Curriculumaren merezimenduak baliozkotzeko, jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, eta, konpultsa horretan, informazio hau jasoko da: data, izen-abizenak, NANA eta konpultsaren arduradunaren sinadura irakurgarria. Osakidetza EAEn ofizialak ez diren hizkuntzetan aurkeztutako dokumentuen zinpeko itzulpena eskatu ahalko die interesdunei. Ez dira zenbatuko erabiltzaileek eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren Curriculum Vitae aplikazioan sartu edo aldatu dituzten merezimenduak.

Era berean, ez dira zenbatuko 2022ko abenduaren 31n emandako dokumentu bidez amaituta ez dauden merezimenduak.

Ofizios baztertuko dira profesionalek aurkeztutako curriculumaren merezimenduen eskabideak, baldin eta eskatutako lanbide-garapenaren mailarako B blokean eskatzen diren gutxieneko puntuetara ailegatzen ez badira.

7. artikulua.– Datuen zehaztasuna.

Aurkeztutako eskaeran, dokumentazioan edota informazioan datu faltsurik aurkituz gero, ezeztatu egingo da eskabidea; horrez gainera, ez zaio uko egingo bestelako lege-neurriak hartzeari.

Osakidetza koa aplikazioko (<https://osakidetza.eko.osakidetza.eus>) «Datu pertsonalak» atalean adierazitako helbideak bakarrik balioko du jakinarazpenetarako, eta eskatzaileen erantzukizuna

izango da helbide hori beteta edukitzea, bai eta edozein aldaketa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari jakinaraztea ere.

8. artikulua.– Egoera bereziak.

Lizentzia- edo baimen-egoeran dauden eta lanpostua gordetzeko eskubidea duten profesionalak, egoera horiek urtebete baino gehiago irauten badute, honako puntuazio hau emango zaie erdi-mailako arduradunek ebaluatutako A blokeko eta C blokeko faktore eta item puntuazio gisa: bere lanbide-taldeko/kategoriako profesionalak bere erakundearen lortutako batez besteko puntuazioa, bere antzintasun-taldearen barruan, egoera horretan dirauten bitartean. Aurreko hori ezinezkoa balitz ez dagoelako batez besteko hori kalkulatzeko 25 profesional edo gehiago, Osakidetza profesionalak euren lanbide-taldean/kategorian eta antzintasun-taldean lortutako batez bestekoa hartuko da erreferentziazat.

Zerbitzu berezietako egoeran dauden profesionalak eta ordezkariak sindikaleko eginkizunak betetzen ari diren profesionalak antzintasunagatik lor dezaketen mailaren gutxieneko puntuazioa emango zaie.

9. artikulua.– Ebaluatze prozedura eta irizpideak.

Ebaluazioa honako hauen arabera egingo da: Osakidetza lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen, langile ez-sanitarioen lanbide-heziketako profesional sanitarioen lanbide-garapena arautzen duten azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 6. artikulua (Profesionalen tipologia, ebaluatze ondoreetarako), 7. artikulua (Ebaluatze faktoreak) eta 8. artikulua (Ebaluatze irizpideak).

Ebaluazio-prozesuan, profesionalak berak, ebaluatutako lan egiten duen arlo, zerbitzu edo unitateko arduradunak eta zerbitzu-erakundearen Ebaluazio Batzordeak hartuko dute parte. Oro har, gainbegiraleak edo zerbitzuburuak/atalburuak/unitateburuak izendatuko dira ebaluatzaile, edo, bestela, goragoko mailako karguak dituzten pertsonak.

a) Ebazpen honen 6. artikuluan araututako curriculumaren merezimenduen eta autoebaluazioaren fasea amaitu ondoren, ataleko, zerbitzuko edo unitateko arduradunaren eginkizuna da A blokeko ekintzaren, jardueren eta lanbide-eremuaren eremuekin lotutako faktore eta itemak eta C blokeko erakundearekiko parte-hartzeari eta konpromisoari buruzkoak ebaluatzea, dena 2022ko abenduaren 31ko data kontuan izanik. Hala ere, horrek ez du eragotziko arduradunari ebaluatze beharrekiko beste alderdi batzuei buruzko informazioa eskatu ahal izatea; horretarako, hark ebaluazioaren emaitzak erregistratu beharko ditu dagokion aplikazioan, eta zerbitzu-erakundearen Ebaluazio Batzordeari aurkeztuko dizkio, berriki eta trata ditzan.

Ataleko, zerbitzuko edo unitateko arduraduna ez bada ebaluatutako lanbide-talde berekoa, arduradun hierarkikoak edo funtzionalak egingo du lanbide-eremuari dagokion ebaluazioa.

Zerbitzu-erakundearen ez badago ebaluatutako profesionalaren lanbide-talde bereko arduradunik, arduradun hierarkikoak egingo du ebaluazioa, betiere ebaluatutako profesionalaren titulazio bera edo handiagoa badu. Horrez gain, Ebaluazio Batzordeak aholkulari bat izendatu ahal izango du, ebaluatutako pertsonaren titulazioa eta/edo espezialitate bera izango duena.

Osakidetza Erizaintzako Eskolako profesionalak, beren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, Eskolako zuzendariek ebaluatuko ditu, eta Zuzendaritza Nagusiko Batzordeari atxikita egongo dira.

Finkoak ez diren langileentzako ebaluazio-prozedura egokitu ahalko da langile mota horren berezitasunen arabera, batez ere ebaluatzaileak izendatzeari eta ebaluazio-batzordeei dagokienez.

b) Zerbitzu-erakundeko Ebaluazio Batzordeak prozesu osoan sortutako informazio guztia, ataleko, zerbitzuko edo unitateko arduradunek egindako ebaluazioak, ebaluatutako profesionalak betetako ekarpen-fitxak eta curriculumaren merezimenduen baremazioaren emaitzak jaso eta aztertuko ditu, eta, hala badagokio, ebaluazioaren emaitzak onartuko ditu.

Atal ezberdinetan lortutako emaitzak ikusita, Ebaluazio Batzordeak uste badu profesionalari buruzko informazio gehiago behar dela, ebaluatuen ebaluazio osagarri bat egitea eska diezaieke arloko, zerbitzuko edo unitateko profesionali, edo, hala badagokio, beste zerbitzu-erakunde bateko espezialitate bereko profesionali.

Ebaluazio Batzordeak, egitekoak amaitutakoan, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda prestatu eta onartuko du, eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira bidaliko dio.

Kasu guztietan, dagokion ebaluazioa gainditu beharko da, bloke eta maila bakoitzean ezarritako gutxieneko puntuazio lortuz, azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Profesionalak ebaluatzeko ardura duten organoei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikulua aplikatuko zaizkie.

10. artikulua.– Mailak esleitzeko prozedura.

a) Mailak esleitzeko behin-behineko ebazpena.

Ebaluazio Batzordeak egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira bidaliko du.

Batzorde Korporatiboak txostena eman ondoren, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda Osakidetzaren webgunean argitaratzeko aginduko du Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendari-tzak ebazpen bidez.

Lanbide-garapeneko mailak esleitzeko Giza Baliabideen zuzendariaren behin-behineko ebazpen horren aurka, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, 10 egun balioduneko epea egongo da, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako erreklamazioak lanbide-garapeneko mailak esleitzeko behin betiko ebazpenaren bidez onartuko edo baztertuko dira.

b) Mailak esleitzeko behin-betiko ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak aginduko du EHAAan argitaratzeko esleitutako mailen behin betiko zerrenda.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua.– Mailaketaren ondorioak eta ebaluazioaren ordainsari-ondorioak.

Dagokion mailan kokatzeak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta ondorio horiek data horretatik aurrera aitortuko dira ekonomikoki, maila eta lanbide-talde bakoitzerako urtero ezarritako zenbatekoen arabera, aurrekontu-legeen arabera.

Ebaluazioa negatiboa bada, profesionalak beste ebaluazio bat eskatu ahal izango du ebaluaziotik bi urte igaro ondoren, mailen behin betiko esleipenaren ebazpenetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan berariaz xedatu ez den guztirako aplikagarriak izango dira Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen, langile ez-sanitarioen eta lanbide-heziketako profesional sanitarioen lanbide-garapena arautzen duten azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuan, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuan eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuan jasotako arauak, baita 2008ko ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren 5. apartatuan jasota dauden egokitzapenak ere.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean; bi kasuetan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango da errekurtsoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 19a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

I. ERANSKINA

LIZENTZIADUN SANITARIOEN MEREZIMENDUEN BAREMOA

A BLOKEA

A blokea «Jarduera Asistentziala» eta «Lanbide-jakintza» deritzen faktoreek osatzen dute; horietako bakoitza item desberdinen bitartez ebaluatzen diren azpifaktoreez osatzen da.

Aipatutako item horiek kargudunak ebaluatzen ditu, profesionalak betetako eskabidean txertatuta dauden Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak kontuan izanda.

1. FAKTOREA. JARDUERA ASISTENTZIALA: Gehienez 100 puntu.

1.1.– AZPIFAKTOREA. HELBURUAK LORTU ETA BETETZEKO ORIENTAZIOA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Joera – Etekina.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 80
– Osakidetzaren batez besteko konparazioa		
– Zerbitzuaren batez besteko konparazioa		

1.2.– AZPIFAKTOREA. ERAGINKORTASUNA BALIABIDEAK KUDEATZEN.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Antolakuntza eta plangintza.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 20
– Baliabideak erabiltzea.		

2. FAKTOREA. LANBIDE JAKINTZA: Gehienez 100 puntu.

2.1. AZPIFAKTOREA. JAKINTZA TEKNIKOA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
Arreta espezializatua. – Zailtasun teknikoa/polibalentzia. – Autonomia tekniken erabileran. – Trebetasuna eta gaitasuna. – Erreferentzialtasuna. – Protokoloak eta teknikak hobetzea/ berrikuntza.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 60
Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
Lehen Mailako Arreta. – Preskripzio-kalitatea. – Protokoloak eta teknikak hobetzea/ berrikuntza. – Erreferentzialtasuna.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 60

2.2. AZPIFAKTOREA. TRATURAKO GAITASUNA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Erabiltzailearekiko harremana.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 20
– Erabiltzailearen gogobetetzea.		

2.3. AZPIFAKTOREA. ZORROZTASUN PROFESIONALA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Arauak/gidalerroak betetzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 20
– Prestakuntza/eguneratze profesionala.		

B BLOKEA

Baremo honetan aipatutako merezimenduen balorazioari begira, honakoa zehazten da:

– Ez dira merezimendutzat hartuko betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lana, lan horren berezko edukia eta espezifikoa. Ebaluazio-batzordeak erabakiko du jarduera horiek aintzat hartu behar diren.

– Prestakuntzako edo irakaskuntzako jardueraren erakunde antolatzailetzat hartzen da jarduera bideratu eta kudeatzen duena, zuzenean edo beste entitate batzuen bitartez eskainita ere. Betiere erakunde antolatzailetzat hartuko da parte-hartzaileak jarduera bete duela ziurtatzen duena edota jarduera horri dagozkion titulazioak edo ziurtagiriak ematen dituen.

– Nazioarte, estatu edo erkidego mailakotzat jotzen diren merezimenduen baremazioa, aurkeztutako dokumentazioan jasotakoarekin bat etorriko da edo, hala dagokionean, nazioartekotzat hartuko da jardueraren zabalkunde-eremua gutxienez lau herrialdetara hedatzen denean, eta estatu mailakotzat zabalkunde-eremua herrialde bakar batera (erkidegoa edo haren barneko lurraldea) mugatzen denean.

Merezimenduek, konputuari dagokionez, gehienezko denbora-muga dutenean, profesionalak parte hartzen duen deialdiari dagozkiola ulertuko da.

3. FAKTOREA. PRESTAKUNTZA.

Atal honetan graduondoko titulazioak eta egindako etengabeko prestakuntza hartuko dira kontuan, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-planean jasota ez badaude.

Kontuan hartuko dira honako arlo hauei buruzko graduondoko titulazioak edo etengabeko prestakuntza:

– Prestakuntza, espezialitatearen edo lanpostuaren oinarrizko arloetan, zerbitzuaren barruan identifikatuta daudenak.

– Prestakuntza espezialitateari edo lanpostuari lotutako teknika osagarrietan.

– Prestakuntza kudeaketan, ikerkuntza-prestakuntzan eta irakaskuntza-tekniketan.

Honako erakunde hauek antolatutako eta ziurtatutako graduondoko titulazioak edo etengabeko prestakuntza baino ez dira kontuan hartuko:

- Unibertsitateak eta unibertsitate-eskolak.
- Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne, titulu ofizialak ematen dituztenean).
- OSNko erakundeak eta zentro sanitarioak, edo EBri dagozkionak.
- Administrazio entitate eta erakundeak.
- Profesionalen elkargoak, Elkarte zientifikoak eta Elkarte profesionalak.
- Estatuko administrazio publikoek hitzartutako etengabeko prestakuntzari buruzko akordioen arabera eskainitako eta egiaztatutako ikastaroak.

Prestakuntzako jarduerak jasotako kredituen arabera puntuatuko dira, betiere honelakoak badira:

- Estatuko unibertsitateetako kredituak.
- Europako ECTS kredituak (unibertsitateko 2,5 kredituen balioa dutenak).
- Etengabeko Prestakuntzako Batzordeko kredituak.

Jarduerak mota honetako krediturik ez badauka, jasotako prestakuntza-orduen arabera puntuatuko da (ez dira puntuatuko titulazioa edo dagokion egiaztatzea lortzeko eskatzen diren praktika-orduak edo erakundeetako egonaldiak).

Graduondoko titulazioa-prestakuntza:

Graduondoko prestakuntzari dagokio, honakoak kontuan hartuta: unibertsitateek, edo haiei lotutako erakundeek, emandako titulu eta diplomak, izaera espezializatu edo diziplina anitzeko prestakuntza aurreratua helburu dutenak, espezializazio akademiko, profesional edo ikerketa-arlokoari begirakoak; graduondoko masterrak, graduondoko diplomak, doktoretzako ikastaroak, etab...

Era ponderatua puntuatuko dira Lanbide-garapeneko maila desberdinak lortu ahal izateko honako graduondoko titulu hauek:

- Unibertsitateek eskainitako master ofizialak (unibertsitateko 60 kreditu edo gehiago).
- Doktore titulua, Ikerkuntzako nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan.

Aplikatu den ponderazioa % 100, % 75, % 50 eta % 25ekoa izango da aurkeztutako deialdi bakoitzean.

Egoiliarren prestakuntza.	5 puntu.
---------------------------	----------

Graduondoko prestakuntza.

Prestakuntza presentziala unibertsitate kreditu/ordutan ziurtatua. Prestakuntza ez-presentziala unibertsitateko kredituetan ziurtatua	Puntuak
– Masterra ≥ 60 kred. (≥ 600 h).	16 puntu.
– Masterra 50-59 kred. (500-599h).	15 puntu.
– Masterra 40-49 kred. (400-499h).	14 puntu.
– Masterra 30-39 kred. (300-399h)/Diploma ≥ 30 kred. (≥ 300 h).	13 puntu.
– Graduondoko masterra/diploma 20-29 kred.(200-299h).	11 puntu.
– Graduondoko masterra/diploma 10-19 kred.(100-199h).	7 puntu.
– Graduondoko diploma ≥ 10 kred.(<100 h).	0,6 kred./ 0,06 orduko.

Prestakuntza ez-presentziala ordutan ziurtatua	Puntuak
– Masterra ≥ 600 h.	8 puntu.
– Masterra 500-599h.	7,5 puntu.
– Masterra 400-499h.	7 puntu.
– Masterra 300-399h / Graduondoko diploma ≥ 300 h.	6,5 puntu.
– Masterra / Graduondoko diploma 200-299h.	5,5 puntu.
– Masterra / Graduondoko diploma 100-199h.	3,5 puntu.
– Graduondoko diploma <100 h.	0,03 puntu / ordua.

Etengabeko prestakuntza:

Etengabeko prestakuntzat hartuko da gaitasun profesionala mantentzeko, areagotzeko edo hobetzeko egiten diren prestakuntza-jarduerak, ikastaroak, mintegiak, tailerrak, etab., behin oinarrizko titulazioa edo dagokion espezialitatekoa lortu ondoren.

Kreditu edo ordurik adierazten ez duten jarduerak ikastegunak aintzat hartuta puntuatuko dira, baldin eta behar bezala adierazita badaude. Kreditu, ordu edo egunik aipatzen ez duten jarduerari 1 eguneko balioko puntuazioa emango zaie.

Etengabeko prestakuntza ez-presentziala gehienez ere 600h/60 kreditu puntuatuko da urte osoari dagokionez. Muga honetatik kanpo daude Osakidetzako prestakuntza-programetan jasota dauden ikastaroak.

Prestakuntza-jarduerak: ikastaroak, tailerrak, mintegiak, etab...

Prestakuntza presentziala unibertsitate kreditu/ordutan ziurtatua Prestakuntza ez-presentziala kreditu unibertsitariotan ziurtatua	Puntuak
– Ikastaroak >10 kreditu (>100 h).	6 puntu/ikastaroa.
– Ikastaroak <10 kreditu (<100 h).	0,6 puntu/kreditua.
– Doktoretzako ikastaroak (12 puntu gehienez doktoretzako ikastaroengatik).	0,06 puntu/ordua. 0,3 puntu/eguna.
Prestakuntza ez-presentziala ordutan ziurtatua	Puntuak
– Ikastaroak >100 h.	2 puntu.
– Ikastaroak <100 h.	0,03 puntu/ordua. 0,15 puntu/eguna.

Bilera zientifikoak:

Bilera zientifikotzat hartzen dira gairi lotutako profesionalen artean lanbide edo jakintza-arlo bateko ezagutza espezifikoen zabalkunde edo eztabaidara beren-beregi zuzendutako deialdi edo foroak, kongresuak, jardunaldiak, mahai-inguruak, sinposioak, etab...

Kreditu edo ordurik adierazten ez duten jarduerak ikastegunak aintzat hartuta puntuatuko dira, baldin eta behar bezala adierazita badaude. Kreditu, ordu edo egunik aipatzen ez duten jarduerari 1 eguneko balioko puntuazioa emango zaie.

Bilera zientifikoak (gehienez 1,5 puntu/bilera).

– Kreditutan ziurtatua (GKF/unibertsitateetakoak).	0,6 puntu/kreditua.
– Ordutan ziurtatua.	0,05 puntu/ordua.
– Egunetan ziurtatua.	0,25 puntu/eguna.

4. FAKTOREA. IRAKASKUNTZA ETA JAKINTZAREN HEDAPENA.

Honako eremuetan egindako irakaskuntza-jarduerak baloratuko dira:

– Irakaskuntza espezialitatearen edo lanpostuaren oinarriko arloetan, Zerbitzuaren barruan identifikatuta daudenak.

– Irakaskuntza espezialitateari edota lanpostuari lotutako teknika osagarrietan.

– Irakaskuntza kudeaketan, ikerkuntza-prestakuntzan eta irakaskuntza-tekniketan.

Erakunde hauek antolatutako eta egiaztatutako irakaskuntzako jarduerak baino ez dira kontuan hartuko:

– Unibertsitateak eta unibertsitate-eskolak.

– Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne, titulu ofizialak ematen dituztenean).

– OSNko erakundeak eta zentro sanitarioak, edo EBri dagozkion osasun-sistemak.

– Administrazioentzako entitate eta erakundeak.

– Profesionalen elkargoak, elkarte zientifikoak eta elkarte profesionalak.

– Estatuko administrazio publikoek hitzartutako etengabeko prestakuntzari buruzko akordioen arabera eskainitako eta egiaztatutako ikastaroak.

Komunikazio edo argitalpen bateko egiletzat jotzeko «Vancouverko arauak» delakoan zehaztutakoak hartuko dira irizpidetzat.

Graduatu aurreko irakaskuntza:

Graduatu aurreko irakaskuntzat hartzen da titulazio akademiko ofiziala lortzeko ematen dena.

2023ko ekainaren 28a, asteazkena

– Katedraduna (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura.	1 puntu/urtea-ikasturtea.
	Diploma.	1 puntu/urtea-ikasturtea.
– Irakasle titularra (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura.	0,75 puntu/urtea-ikasturtea..
	Diploma.	0,75 puntu/urtea-ikasturtea
– Irakasle elkartua/Laguntzailea (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura.	0,02 puntu/ordua (Geh.1 puntu/ikasturtea).
	Diploma.	0,02 Puntu / orduko (Geh.1 puntu/ikasturtea).
– Graduatu aurreko praktiken tutore arduraduna (Gehienez 10 urte).	Lizentziatura.	0,5 puntu/urtea-ikasturtea.
	Diploma.	0,5 puntu/urtea-ikasturtea.

Egoiliarren irakaskuntza.

– Ikasketaburua (gehienez 7 urte).	2,25 puntu/urtea.
– Zentroko Zuzendaritzak ziurtatutako espezialitateko tutorea (Gehienez 10 urte).	1 puntu/urtea.
– Egoiliarren irakaslea (ikasketaburuak edo espezialitateko tutoreak izendatua), BAME irakaskuntzarako zerbitzu egiaztatu zein egiaztatu gabeetan (gehienez, 10 urte).	0,05 puntu/hilabetea.

Graduondoko irakaskuntza eta etengabeko prestakuntza ziurtatua.

Honakoei dagokie: graduondoko edota etengabeko prestakuntzari lotutako irakaskuntzako jarduerak; ikastaroak, mintegiak, tailerrak, saio kliniko orokorrak, etab...

– Txostengile-irakaslea.	0,3 puntu/ordua.
– Graduondoko ikastaroetako praktiketako tutore-arduraduna.	0,5 puntu/ikastaroa.
– Proiektuak ebaluatzea (tesinak, graduondokoak, etab...).	1 puntu/proiektua.

Bilera zientifikoak.

Txostenak*.

– Nazioartekoa.	Egile nagusia/txostengilea.	4 puntu/txostena.
	Moderatzailea/Egile laguntzailea.	2 puntu/txostena.
– Estatukoa/eskualdekoa.	Egile nagusia/txostengilea	2 puntu/txostena.
	Moderatzailea/Egile laguntzailea.	1 puntu/txostena.

Ahozko komunikazioa, bideo-komunikazioa, poster-komunikazioa*.

– Nazioartekoa.	Egile nagusia/txostengilea.	2 puntu/komunikazioa.
	Moderatzailea/Egile laguntzailea.	1 puntu/komunikazioa.
– Estatukoa/eskualdekoa.	Egile nagusia/txostengilea.	1 puntu/komunikazioa.
	Moderatzailea/Egile laguntzailea.	0,5 puntu/komunikazioa.
– Dibilgazioko komunikazioak/parte-hartzeak osasun-arloan (hitzaldiak, aurkezpenak etab...).		0,3 puntu/komunikazioa.

*Txostenek edo komunikazioek sari edo goraipamen bat jasotzen badute, haien puntuazioa % 50 igoko da (moderatzailea alde batera utzita).

2023ko ekainaren 28a, asteazkena

Artikuluen argitalpena.

Jatorrizko artikuluen egilea.

– Nazioarteko aldizkaria.	Inpaktu faktorea (ISI) ≥ 10	10 puntu/artikulua.
	Indexatua < 10 (ISI) inpaktu faktoreaz.	5 puntu/artikulua.
	Beste aldizkari batzuk.	2 puntu/artikulua.
– Aldizkari nazionala.	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI).	3,5 puntu/artikulua.
	Beste batzuk.	1,5 puntu/artikulua.

Berraztertze artikulua eta editorialetako egilea.

– Nazioarteko aldizkaria.	Inpaktu faktorea (ISI) ≥ 10	5 puntu/artikulua.
	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI).	2,5 puntu/artikulua.
	Beste batzuk.	1 puntu/artikulua.
– Aldizkari nazionala.	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI).	1,75 puntu/artikulua.
	Beste batzuk.	0,75 puntu/artikulua.

Ohar kliniko, zuzendariarentzako gutun eta beste batzuen egilea.

– Nazioarteko aldizkaria.	Inpaktu faktorea (ISI) ≥ 10	1,5 puntu/artikulua.
	Indexatua inpaktu faktoreaz (ISI).	0,75 puntu/artikulua.
	Beste batzuk.	0,3 puntu/artikulua.
– Aldizkari nazionala.	Indexatua inpaktu faktoreaz.	0,6 puntu/artikulua.
	Beste batzuk.	0,25 puntu/artikulua.

Liburuen argitalpena (tesiak, txostenak, jardunaldi eta kongresu jakinarazpenak izan ezik).

– Osakidetzak argitaratutako liburuetan egilea izatea		3 puntu/liburua
– Liburuak (ISBN edo lege-gordailudunak).	Zuzendaria/Egilea/Editorea/koeditorea	7 puntu/liburua
– Kapituluak (ISBN edo lege-gordailudunak).	Egile nagusia.	2 puntu/kapituluak (Geh. 7 puntu/liburua).
	Egile laguntzailea.	1 puntu/kapituluak (Geh. 3,5 puntu/liburua).

Irakaskuntza-jarduera eta jakintzaren hedapenaren antolaketa eta kudeaketa.

Honi dagokio irakaskuntzako eta jakintzaren hedapenerako jarduerak antolatzea; ikastaroak, biltzarrak, mahai-inguruak eta abar...

Batzorde antolatzaileko/zientifikoko presidentea, zuzendaria, idazkaria.	Nazioartekoa.	Biltzarrak.	5 puntu/ekitaldia
		Doktoretzako ikastaroa.	3 puntu/ekitaldia
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma.	2,5 puntu/ekitaldia
		Bestelako ikastaroak.	2 puntu/ekitaldia
	Estatukoa-Eskualdekoa.	Biltzarrak.	3 puntu/ekitaldia
		Doktoretzako ikastaroa.	2 puntu/ekitaldia
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma.	1,5 puntu/ekitaldia
		Bestelako ikastaroak.	1 puntu/ekitaldia
Batzorde antolatzaileko/zientifikoko presidenteordea. Batzorde antolatzaileko/zientifikoko kidea.	Nazioartekoa.	Biltzarrak.	3 puntu/ekitaldia
		Doktoretzako ikastaroa.	2 puntu/ekitaldia
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma.	1,5 puntu/ekitaldia
		Bestelako ikastaroak.	1 puntu/ekitaldia
	Estatukoa-Eskualdekoa.	Biltzarrak.	2 puntu/ekitaldia
		Doktoretzako ikastaroa.	1,5 puntu/ekitaldia
		Mahai-ingurua, jardunaldia, simposiuma.	1 puntu/ekitaldia
		Bestelako ikastaroak.	0,5 puntu/ekitaldia

5. FAKTOREA. IKERKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA BESTE MEREZIMENDU BATZUK.

– Doktore titulua (ez dira kontuan hartzen doktoretzako ikastaroak eta Ikerkuntzako Nahikotasuna).	18 puntu/Doktore titulua
– Ikerkuntzako nahikotasuna (ez dira kontuan hartzen doktoretzako ikastaroak).	10 puntu/Ikerkuntzako nahikotasuna
– Doktoretza-tesiaren zuzendaritza.	3 puntu/Tesi-zuzendaritza
– Doktoretza-tesiaren epaimahaia.	0,5 puntu/urtea (Gehienez 10 urte).

Ikerkuntza-proiektuak.

Ikerkuntza-proiektutzat hartuko dira Barne Ikerkuntza Batzorde batek, Erakunde Finantzaileak edo deialdi publiko baten bidez emandako proiektuaren Ebaluazio-agentziak ebaluatutako proiektuak (azken kasu horretan, deialdian ezarritako epean amaitutako proiektuak baino ez dira kontuan hartuko).

– Deialdi publiko batez emandako ikerkuntza-proiektuak.	– 2 urtetik gorako iraupena duten proiektuak.	Ikerkuntzaile nagusia.	8 puntu/proiektua
		Ikerkuntzaile laguntzailea.	4 puntu/proiektua
	– 2 urtetik beherako iraupena duten proiektuak.	Ikerkuntzaile nagusia.	6 puntu/proiektua
		Ikerkuntzaile laguntzailea.	3 puntu/proiektua
– Osasun Saileko Mediku Jagole Sarean parte hartzea.			0,5 puntu/urtea

*Proiektuek sari edo goraipamen bat jasotzen badute, haien puntuazioa % 50 igoko da.

2023ko ekainaren 28a, asteazkena

– Ikerkuntzako Zentro edo Fundazioetako Ikerkuntza Klinikoko Etika Batzordeak (CEIC) onartutako saio klinikoak.	Ikerzaile nagusia.	1 puntu/saiakuntza
	Ikerzaile laguntzailea.	0,5 puntu/saiakuntza
– Ebaluatzailea onartutako erakundeetan, erakunde finantzatzailean edo proiektuak ebaluatzeko agentzian.		3 puntu/erakundea
– Sariak eta goraipamenak ikerkuntzari.	Sariak eremu zientifikoan prestigio ezaguneko estatu-mailako ikerkuntzan.	Puntuak (1. oharra).
	Beste sari batzuk ikerkuntzan.	3 puntu.

(1. oharra) Batzorde Korporatiboaren derrigorrezko txostenaren ondoren Ebaluazio Batzordeak eman beharreko puntuazioa.

– Biomedikuntzaren eremuan erregistratutako patenteak eta ereduak, honako hauek emandakoak: Zientzia eta Teknologia Ministerioaren Oficina Española de Patentes y Marcas (OEPM), European Patent Office (EPO), Patent Cooperation Treaty (PCT).		8 puntu/erregistratutako patentea edo ereduak
– Ikerkuntzako egonaldiak (hilabetetik gorako egonaldiak bakarrik). Gehienez 12 hilabete.		0,8 puntu/hilabetea
Finantzazioa lortzeko gaitasuna* *Ikerzaile nagusia bakarrik.	75.000 €-tik gorako finantzazioa lortzeko gaitasuna.	6 puntu.
	12.000-75.000 € arteko finantzazioa lortzeko gaitasuna.	4 puntu.
	12.000-30.000 € arteko finantzazioa lortzeko gaitasuna.	3 puntu.
	12.000 € arteko finantzazioa lortzeko gaitasuna.	2 puntu.

Ikerkuntzari lotutako beste merezimendu batzuk.

– Erakunde ofizial batek aitortutako ikerkuntza sare edo partzuergoetakoa izatea.	Koordinatzaile nazionala.	6 puntu/ sarea/partzuergoa.
	Nodoko koordinatzailea.	3,5 puntu/ sarea/partzuergoa.
	Nodoko Ikerzaile nagusia.	3 puntu/ sarea/partzuergoa.
	Laguntzailea.	1,8 puntu/ sarea/partzuergoa.
– Erakunde ofizialek egiaztatutako adituen paneletan parte hartzea.	Koordinatzailea.	2,4 puntu.
	Laguntzailea.	1,2 puntu.
– Argitalpen-batzordeko kide izatea aldizkari medikoan, aldizkari zientifiko-teknikoan edo osasun-zientzien alorreko aldizkarian.	Nazioarteko argitalpen-batzordea.	4,5 puntu/batzordea.
	Estatuko argitalpen-batzordea.	2,5 puntu/batzordea.
	Eskualdeko/tokiko argitalpen-batzordea.	1,5 puntu/batzordea.
– Zuzentzailea aldizkari medikoan, aldizkari zientifiko-teknikoan edo osasun-zientzien alorreko aldizkarian.	Nazioarteko aldizkaria.	4 puntu/batzordea.
	Aldizkari nazionala.	2 puntu/batzordea.
	Eskualdeko/tokiko aldizkaria.	1 puntu/batzordea.
– Elkarte zientifikoetan parte hartzea zuzendaritza-batzordeko kide gisa.	Nazioartekoak.	1 puntu.
	Estatukoak.	0,5 puntu.
– Euskaliteko ebaluazio-taldean parte hartzea.	Ebaluatzaile seniorra.	2 puntu/Egindako ebaluazioa.
	Ebaluatzailea.	1 puntu/Egindako ebaluazioa.

C BLOKEA

C blokea osatzen duten azpifaktoreak, dagozkien itemen bitartez ebaluatuak, hauexek dira: «Talde-lana», «Erakundearekiko lankidetzeta» eta «Hobekuntzarako orientazioa».

Aipatutako item horiek kargudunak ebaluatzen ditu, profesionalak betetako eskabidean txertatuta dauden Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak kontuan izanda.

6. FAKTOREA. ERAKUNDEAREKIKO INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA Gehienez 45 puntu.

6.1.– AZPIFAKTOREA. Talde-lana.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Talde-lana.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 10

6.2.– AZPIFAKTOREA. Erakundearekiko lankidetzeta.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Erakundearen helburuekiko konpromisoa.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 10
– Zerbitzuko/unitateko jardueretan parte hartzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 10
Organo, batzorde eta taldeetan parte hartzea.	Egiaztatutako merezimenduak.	Gehienez 5 puntu.
– Lanbide-garapeneko Batzorde Korporatiboa.	Presidentea edo idazkaria.	2 puntu/ epaimahaia/batzordea
– Izendapenak Aldizkari Ofizialean argitaratutako organo eta batzordeetan parte hartzeko, Administrazioaren hautapen-batzordeak, Osasun Saileko aholku-batzordeak, Ikasketak luzatzeko laguntza-batzordea eta bilera zientifikoen antolaketa, Kontratazio Mahaia, etab...	Kidea.	1 puntu/ epaimahaia/batzordea
– Izendapenak epaimahaietan eta ebazpen bidez izendatutako beste organo batzuetan parte hartzeko.	Presidentea/Idazkaria/ Ordezkoa.	1 puntu/ epaimahaia/batzordea
– Izendapenak Osakidetzako langileen lan-baldintzen Akordioa aplikatzearen ondorioz sortutako organo, batzorde edo komisiotan parte hartzeko.	Ordezko kidea.	0,5 puntu/ epaimahaia/batzordea
– Zerbitzu-erakundeetako Lanbide-garapeneko ebaluazio-batzordeetan parte hartzea.	Kidea (Gehienez 5 puntu).	0,5 puntu/deialdia
	Ordezko kidea (Gehienez 5 puntu).	0,3 puntu/deialdia
– Irakaskuntzako eta etengabeko prestakuntzako batzordean parte hartzea (Ikasketaburua izan ezik).	Presidentea/Idazkaria (Gehienez 10 urte).	0,5 puntu/urtea.
– Lehen Mailako Arretako irakaskuntza-unitateko aholku-batzordea.	Kidea (Gehienez 10 urte).	0,25 puntu/urtea.
– Ikerkuntza-batzordea, Ikerkuntza Klinikoko Etika Batzordea (CEIC).	Ordezko presidentea/ Ordezko idazkaria (Gehienez 10 urte).	0,2 puntu/urtea.
– Beste batzorde kliniko batzuk: Liburutegia, Farmazia, Infekziosoak, Heriotza-tasa, Tumoreak, Historia Klinikoak, Kalitatea, etab...		
Erakundeetako beste batzorde batzuk:		
– Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordea.	Ordezko kidea (Gehienez 10 urte).	0,1 puntu/urtea.
– Euskara Batzordea.		
– Mugikortasuneko Batzordea.		
– Erosketen Batzordea.		
– Ingurumen Batzordea.		
– Pertsonala kontratatzeako Batzordea.		
– Osasun-arrazoiengatikoko Lekualdatzeetako Batzordea.		

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Osasun Sailak, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeko kideek izendatutako lantaldeak.	Presidente/Idazkaria/ Arduraduna.	3 puntu/taldea.
	Kidea.	1,5 Puntu/taldea.
– Lantaldeak (egonkorak edo proiektu espezifikoak egiteko), zerbitzu-erakundeko zuzendari-gerenteak edo bertoko Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatuak.	Presidente/Idazkaria/ Arduraduna.	1,5 puntu/taldea.
	Kidea.	1 puntu/taldea.
– Zerbitzu-erakundeko Gerentziak izendatutako Prozesu-arduradunak (EZko Prozesuen Mapan jasotako prozesuak eta Prozesuen Kudeaketa Metodologiaren arabera kudeatutakoak hartzen dira kontuan).	Prozesu-arduraduna.	2 puntu/Prozesua.

6.3. AZPIFAKTOREA. Hobekuntzarako orientazioa.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Hobekuntzarako ekarpenak.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 - 5
– Aldaketetara egokitzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 - 5

II. ERANSKINA

DIPLOMADUN SANITARIOEN MEREZIMENDUEN BAREMOA

A BLOKEA

A blokea «Jarduera Asistentziala» eta «Lanbide-jakintza» deritzen faktoreek osatzen dute; horietako bakoitza item desberdinen bitartez ebaluatzen diren azpifaktoreez osatzen da.

Aipatutako item horiek kargudunak ebaluatzen ditu, profesionalak betetako eskabidean txertatuta dauden Ebaluaziorako Ekarpen Fitxak kontuan izanda.

1. FAKTOREA. JARDUERA ASISTENTZIALA: Gehienez 80 puntu.

1.1.– AZPIFAKTOREA. TALDEAREN HELBURUAK LORTZEA ETA HORIEK LORTZEKO EKARPEN INDIBIDUALAREN MAILA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Taldeko/Unitateko emaitza eta helburuen eboluzioa.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 60
– Taldeko/Unitateko emaitzak eta helburuak kanpoko erreferentzia batekin alderatzea.		
– Taldeko/Unitateko emaitzak eta helburuak lortzeko ekarpen indibidualaren maila.		

1.2.– AZPIFAKTOREA. BALIABIDEAK PLANIFIKATU, ANTOLATU ETA ERABILTZEA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Antolakuntza, plangintza eta arazoak konpontzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 20
– Baliabideak erabiltzea.		

2. FAKTOREA. LANBIDE JAKINTZA: Gehienez 120 puntu.

2.1.– AZPIFAKTOREA. JAKINTZA TEKNIKOA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Jarduera hartu, baloratu eta planifikatzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 80
– Zainketak, teknikak, probak, tratamenduak burutzea.		
– Erabiltzailea erregistratu, jarraitu, ebaluatu eta prestatzea.		

2.2.– AZPIFAKTOREA. ZORROZTASUN PROFESIONALA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Arauak eta gidalerroak betetzea.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 - 20
– Lanbidean eguneratu eta hobetzea.		

2.3.– AZPIFAKTOREA. ERABILTZAILE/PAZIENTE/SENIDEEKIKO HARREMANA.

Itemak	Ebaluazioa	Puntuazioa
– Komunikazioa, hurbilerratasuna eta enpatia.	5 gradu ebaluatzen dira.	0 – 20
– Erabiltzaileen/senideen gogobetetzea.		

B BLOKEA

Baremo honetan aipatutako merezimenduen balorazioari begira, honakoa zehazten da:

– Ez dira merezimendutzat hartuko betetzen den lanpostuan egiten den ohiko lana, lan horren berezko edukia eta espezifikoa. Ebaluazio-batzordeak erabakiko du jarduera horiek aintzat hartu behar diren.

– Prestakuntzako edo irakaskuntzako jardueraren erakunde antolatzailetzat hartzen da jarduera bideratu eta kudeatzen duena, zuzenean edo beste entitate batzuen bitartez eskainita ere. Betiere erakunde antolatzailetzat hartuko da parte-hartzaileak jarduera bete duela ziurtatzen duena edota jarduera horri dagozkion titulazioak edo ziurtagiriak ematen dituen.

– Nazioarte, estatu edo erkidego mailakotzat jotzen diren merezimenduen baremazioa, aurkeztutako dokumentazioan jasotakoarekin bat etorriko da edo, hala dagokionean, nazioartekotzat hartuko da jardueraren zabalkunde-eremua gutxienez lau herrialdetara hedatzen denean, eta estatu mailakotzat zabalkunde-eremua herrialde bakar batera (erkidegoa edo haren barneko lurraldea) mugatzen denean.

Merezimenduek, konputuari dagokionez, gehienezko denbora-muga dutenean, profesionalak parte hartzen duen deialdiari dagozkiola ulertuko da.

3. FAKTOREA. PRESTAKUNTZA.

Atal honetan graduondoko titulazioak eta egindako etengabeko prestakuntza hartuko dira kontuan, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa-planean jasota ez badaude.

Kontuan hartuko dira honako arlo hauei buruzko graduondoko titulazioak edo etengabeko prestakuntza:

– Erakunde barruan bere jarduera-arlokoak diren eduki propioei buruzko prestakuntza.

– Osakidetzako jarduera eta prestazioen eremuan bere lanbidekoak diren eduki propioei buruzko prestakuntza.

– Diziplina profesionalaren eremuan “Berrikuntzara” bideratutako prestakuntza.

– Kudeaketari, ikerkuntzari eta irakaskuntzako teknikei buruzko prestakuntza.

Honako erakunde hauek antolatutako eta ziurtatutako graduondoko titulazioak edo etengabeko prestakuntza baino ez dira kontuan hartuko:

– Unibertsitateak eta unibertsitate-eskolak.

– Ikastetxe publikoak (kontzertatuak barne, titulu ofizialak ematen dituztenean).

– OSNko erakundeak eta zentro sanitarioak, edo EBri dagozkionak.

- Administrazio entitate eta erakundeak.
- Profesionalen elkargoak, Elkarte zientifikoak eta Elkarte profesionalak.
- Estatuko administrazio publikoek hitzartutako etengabeko prestakuntzari buruzko akordioen arabera eskainitako eta egiaztatutako ikastaroak.

